## Nietzsche eta nihilismoa

| JAINKOAREN HERIOTZA | *LA MUERTE DE DIOS* |
|---|---|
| 1/ Moral kristaua mende askoan nagusitu da Mendebaldean, baina Nietzschek uste zuen nagusitasun horrek hurbil zuela azkena. Gero eta gehiago dira kristautasunaren gezur handiaz ohartu diren pertsonak, eta gero eta gehiago dira, halaber, gezur handi horretaz libratu nahi dutenak, beste era bateko bizimodua garatu ahal izateko, bizimodu libreago eta beteago bat, alegia. Nietzschek ospetsu bihurtu den esaldi batez adierazi zuen uste sendo hori: "Hauxe gertatu da, Jainkoa hil egin dela, gizakiok hil dugulako". | 1/ *Aunque la moral cristiana se ha impuesto en Occidente durante siglos, Nietzsche creía que su dominio tenía los días contados. Cada vez son más las personas que han comprendido la enorme mentira del cristianismo, y también son cada vez más numerosos quienes desean liberarse de él para desarrollar una nueva forma de vida, más libre y plena. Nietzsche expresó esta convicción con una frase que se ha hecho célebre: "lo que ha sucedido es que Dios ha muerto porque los seres humanos lo hemos matado".* |
| 2/ Nietzscheren iritzian, **Jainkoaren heriotza** gertaera historikoa da, garaiko garrantzitsuena. Jainkoa galtzean, gizakia ezer galdu ez izanetik urrun dago: aitzitik, orain arte zentzuz bizitzeko aukera ematen zion gauza bakarra galdu du. Jainkoa ez da fededun batzuen sinesmena bakarrik, Mendebaldeko kulturaren oinarria ere bada (erlijioarena, moralarena eta metafisikarena). Jainkoa hiltzean, beraz, zentzumenez gaindiko mundua amildu da; izan ere, esparru horretan, Jainkoaren auziaz gain, egiaren, moraltasunaren, askatasunaren, zentzuaren, guztiaren arrazoiaren auzia ere planteatzen zen. Mendebaldeko kulturaren balioen eta idealen sistema osoa hondoratu da, baita bertsio laiko edo humanistan ere. | 2/ *A juicio de Nietzsche, la* ***muerte de Dios*** *es un acontecimiento histórico, el más importante de la época. Al perder a Dios, el hombre está lejos de no haber perdido nada: pierde, al contrario, la única cosa que hasta ahora le permitía vivir con sentido. Dios no es sólo la creencia de ciertos creyentes sino también el fundamento de la cultura occidental (de la religión, la moral y la metafísica). Al morir Dios se derrumba, por tanto, el mundo suprasensible, ámbito en el que se planteaba no sólo la cuestión de Dios sino también y a la vez la cuestión de la verdad, de la moralidad, de la libertad, del sentido, de la razón de todo. Se ha hundido todo el sistema de valores e ideales de la cultura occidental, incluso en su versión laica o humanista.* |
| 3/ Modernitateak Jainkoa hil egin du, horrelako gertakariaren tamainaz konturatu ez arren. Gizarte sekularizatuak sortzeak egin du posible gertaera hori (Eliza eta Estatua bananduta dauden gizarteak, irizpide moral hertsiki arrazionalen araberako legeak dituztenak, ez nahitaez irizpide erlijiosoen araberakoak). Nietzschek **kristautasun sekularizatua**ren motatzat ditu, ez dietelako uko egin antzinako balio kristauei, nahiz eta oinarririk gabe utzi duten moral hori. | 3/ *La Modernidad ha matado a Dios, aunque sin tomar conciencia de la magnitud de semejante hecho. Lo que ha hecho posible dicho acontecimiento es el surgimiento de sociedades secularizadas (aquellas en las que rige una separación clara entre la Iglesia y el Estado, y las leyes responden a criterios morales estrictamente racionales, no necesariamente religiosos). Nietzsche se refiere a ellas como una forma de* ***cristianismo secularizado*** *porque no renuncian a los antiguos valores cristianos, ahora sin fundamentar.* |
| 4/ Jainkoaren heriotzaren prozesua Errenazimentuan hasi zen, Aro Modernoaren hasieran, eta arrazionalismoarekin (XVII. mendea) eta Ilustrazioarekin (XVIII. mendea) jarraitu zuen gero. Arrazionalismoak eta, batez ere, Ilustrazioak arrazoia kokatu zuten Jainkoaren ordez. Baina arrazoia, Nietzscheren ustez, ez da Jainkoa. Arrazoia mugatua eta finitua da eta **ezin du Jainkoa ordezkatu**. Modernitateak (gizakiak) betiko hil du Jainkoa. | 4/ *El proceso de la muerte de Dios se inicia con el Renacimiento, en los comienzos de la Edad Moderna y continúa con el racionalismo (siglo XVII) y la Ilustración (siglo XVIII). En la Modernidad la razón ocupa el lugar de Dios lo cual, según Nietzsche, es un sinsentido: la razón es limitada y finita y* ***no puede sustituir a Dios.*** *La Modernidad (el hombre) ha dado muerte a Dios para siempre.* |
| 5/ Bi adibide:<br>Ilustrazioak: mundu ideal batean sinesten jarraitu zuen, baina mundu hori lurrean kokatu zuen. Geuk, gizakiok, eraiki behar dugu mundu hori, arrazoiaren eta zientziaren bidez. Nietzscheren ustez, Ilustrazioaren erasoa dogmatismo teologikoen eta Elizaren boterearen aurkakoa izan zen, baina sistema moral berari eutsi zion | 5/ *Dos ejemplos:*<br>*La Ilustración: sigue creyendo en un mundo ideal en la tierra. El ser humano puede construir dicho mundo por medio de la razón y de la ciencia. Según Nietzsche la Ilustración dirige su crítica contra los dogmas teológicos y el poder de la Iglesia, pero mantiene el mismo sistema* |

| | |
|---|---|
| Estatuko erakundeetan, nahiz eta horren oinarri teologikoak gaitzetsi. | *moral del cristianismo en las instituciones del Estado, aunque renunciando a sus fundamentos teológicos.* |
| 6/ Sozialismoak: mundu ideala paradisu komunista edo klaserik gabeko gizartea da (lurrean ere bai).<br>Nietzscheren ustez, kristautasun sekularizatuaren forma guztiek errealitatea faltsutu egiten dute.<br>Jainkoaren heriotzak ondorio sakonak ditu. Jainkoa desagertu ondoren, aldi nihilista bat dator. Aldi horrek alderdi negatibo bat du, noraeza eta nahasmena, eta beste alderdi bat, positiboa, beste etapa bat hasteko bidea ematen duena, balio berrietan oinarritutako etapa bat, alegia. Hori aztertuko dugu hurrengo atal honetan. | 6/ *El socialismo: el mundo ideal es el paraíso comunista o sociedad sin clases (también en la tierra).*<br>*Para Nietzsche, todas las formas de cristianismo secularizado falsean la realidad.*<br>*La muerte de Dios tiene profundas repercusiones. Tras la desaparición de Dios se abre una época nihilista, con una dimensión negativa de confusa desorientación, y otra positiva que permite el comienzo de una etapa diferente basada en valores nuevos.* |
| **NIHILISMOA** | ***EL NIHILISMO*** |
| **Nihilismoa Jainkoaren heriotzaren aurretik** | ***El nihilismo antes de la muerte de Dios*** |
| 7/ **Nihilismoak** esan nahi du, lehenik eta behin, bizitzaren zentzua galtzea, bizitzaren eta bizitzaren balioen ukazioa, ezerezaren nahia. (Nihilismo hitza latinetik dator: nihil = ezer ez). Nihilismoa, beraz, Mendebaldeko edo Europako kulturaren funtsezko jarrera da Sokrates eta Platonengandik hasita, eta kristautasunak jarrera hori sendotu egin zen gero. Nihilismoak balio goren guztien balioa galtzea dakar, hau da, jauntxoen balioak galtzea -Europako kulturan gertatu dena-, eta Mendebaldeko munduaren ezaugarri izan diren bizitzaren eta gainbeheraren ukazioa. **Ezezko nihilismoa**, hain zuzen | 7/ ***Nihilismo*** *quiere decir, en primer lugar, pérdida del sentido de la vida, negación de la vida y de los valores de la vida, voluntad de nada. (La palabra nihilismo deriva del latín: nihil=nada). El nihilismo es, por lo tanto, la actitud fundamental de la cultura occidental o europea desde Sócrates y Platón la cual se afianza con el cristianismo. Nihilismo significa la desvalorización de todos los valores superiores, es decir, el fenómeno de la pérdida de los valores de los señores que ha tenido lugar en la cultura europea; la negación de la vida y la decadencia que han caracterizado al mundo occidental.* |
| 8/ **Nihilismoa Jainkoaren heriotzaren ondoren**<br>Mendetan eta mendetan erlijio kristauan oinarritu den europar kulturarentzat, **Jainkoaren heriotza**k oso ondorio larriak ditu. Jainkoa hil egin dela ohartzen denean, sinestun baten lehen erreakzioa erabat galduta eta noraezean sentitzea da. Jainkorik ez bada, erori egiten zaigu geure sinesmen zaharren eta segurtasunen euskarri den oinarria, eta egundoko hutsa uzten digu. Bat-batean, ohartzen gara gure sineste sakonek existitzen ez den zerbait zutela oinarri. Bide horretatik, nihilismoan erortzen gara, galera- eta nahasmen-etapa batean, alegia, eta badirudi bizitzak zentzua galdu duela guretzat. Hori ere nihilismoaren alderdi negatiboa da. | 8/ ***El nihilismo después de la muerte de Dios***<br>*Para una cultura como la europea, que se ha fundamentado en la religión cristiana durante siglos,* ***la muerte de Dios*** *tiene importantes consecuencias. Cuando un creyente descubre que Dios ha muerto, su primera reacción es la de sentirse gravemente perdido y desorientado. Si no hay ningún Dios, la base sobre la que se apoyaban nuestras antiguas creencias y seguridades se derrumba, dejando detrás un enorme vacío. De pronto nos damos cuenta de que nuestras más profundas convicciones estaban sustentadas en algo que no existe. De este modo caemos en el nihilismo, una etapa de pérdida y de confusión en la que parece que nuestra vida ha perdido su sentido. Este es también el aspecto negativo o pasivo del nihilismo.* |
| 9/ Zentzu negatiboan, nihilismoak azken gizakiaren gainbehera edo **nihilismo pasiboa** esan nahi du. Ezezko nihilista **azken gizakia** da. Berak badaki Jainkoa hil dela, baina ez du onartu nahi, eta hil arte besterik gabe bizi da, ezerezean eta bizipozik gabe. Kristautasun sekularizatua ere nihilismo pasiboaren forma bat da, oinarririk ez duten balio kristauak defendatzen baititu – Halako izenik eman gabe –. Zertan oinarritzen gara gizakiak berdinak direla edo eskubide berberak dituztela esateko? Dagoeneko inork sinesten ez dituen postulatu kristau batzuetan bakarrik: Jainkoa existitzen dela, gure sortzaile eta aita | 9/ *En sentido negativo, nihilismo significa la decadencia del* ***último hombre o nihilismo pasivo****. El último hombre es el que sabe que Dios ha muerto, pero no quiere aceptarlo y vive sin alicientes hasta su muerte, sin dar valor a nada y sin alegría de vivir. También el cristianismo secularizado es una forma de nihilismo pasivo al defender valores cristianos –sin darles tal nombre- que carecen de fundamento. ¿En virtud de qué cabe afirmar que los hombres son iguales o que tienen los mismos derechos? Solamente en función de una serie de postulados cristianos en los que ya nadie cree: que Dios existe, que es* |

| | |
|---|---|
| dela eta gizakiak anai-arrebak garela. Azken gizona zibilizazio baten amaiera da. | *nuestro creador y padre y que los hombres somos hermanos. El último hombre es el fin de una civilización.* |
| 10/ Baina nihilismoak ez du alderdi negatibo hori bakarrik; horrez gainera, interpreta daiteke nahitaezko fasetzat ere, nahitaezkoa gezur zaharrez libratzeko eta, hartara, bizitzan bide berri bati ekiteko. Nietzschek nihilismoaren ikuspegi positibo horren garrantzia azpimarratu zuen, hau da, **baiezko nihilismoa**; izan ere, berriro hasi nahi badugu, gure sineste zahar eta okerrak, esklaboen balioak, suntsitzen hasi behar dugu balio berriak sortzeko eta bizitzari baiezkoa emateko. | 10/ *Sin embargo, el nihilismo no solo tiene esta vertiente negativa, sino que también puede interpretarse como una fase necesaria para poder desprenderse de las antiguas mentiras y, de esta manera, emprender un nuevo rumbo vital. Nietzsche subrayaba la importancia que tiene esta dimensión positiva del nihilismo, el* ***nihilismo activo****, ya que para poder empezar de nuevo es preciso empezar por destruir nuestras viejas y equivocadas creencias.* |
| 11/ Zentzu positiboan, **nihilista aktiboa**k badaki Jainkoa hil dela eta onartu egiten du. Aitortzen du balio tradizionalak, esklaboen balioak, hutsak direla, eta ezabatu egiten ditu. Balio horiek ezabatuta («mailukadaka filosofatu ») ezereza baino ez da geratzen, baina beharrezko urratsa da balio berriak eraikitzeko (balioen transmutazioa) eta supergizakia sortu ahal izateko. | 11/ *En sentido positivo, el* ***nihilista activo*** *es consciente de que Dios ha muerto y lo asume. Reconoce la vaciedad de los valores tradicionales, los valores de los esclavos, y los elimina. Al eliminar esos valores ("filosofar a martillazos") solo queda la nada, pero es el paso necesario para construir valores nuevos (transmutación de los valores) y para que pueda surgir el superhombre.* |